

LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2026-03-02

BILERA ZENBAKIA: 3

ORDUA ETA LEKUA: 17:30 Itsasondoko udala

PARTEHARTZAILEAK: Elena (Udal zinegotzia), Bihotza (Gizarte Langilea) eta Mainer.

LANDUTAKO GAI ORDENA

Martxoaren 8a:

Aurten M8 martxoaren 7an ospatuko da, eta elkarretaratzea larunbaterako deituko dugu baita, jende gehiago aurreikusten dugu bazkaria aurretik igandean baino. Pankarta bilera gelan dago, egunean bertan hartu.

Errolda soziala:


Ongizate batzordeko partaide batek bere burua prest azaldu du familia laguntzeko eta errolda sozialaren eskaera kudeatzen lagunduko ditu. Aurretik eskaera egin dute baina ezin izan da tramitatu, ez baitzan eskaera ofiziala. Plenotik pasa beharko den zalantza egin du gizarte langileak.

Mediku etxea:

Obra txiki batzuk behar ditu mediku etxeko 1go solairuak prozesua martxan jarri aurretik. Oinarriak plenotik pasa dira. Etxebizitza erregistroan izena emateko eskaera orri ereduak behar ditugu, Bihotzak Erkudeni helaraziko dizkio herri ezberdinetako eredu bi.

Kulturartekotasuna:

Dirulaguntza eskaera egin dugu; 7.000€ Emagin, 5.000€ Biziola.



ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Elkarretaratzea jakinarazi Nagoreri		Bihotza
Errolda soziala plenora		Elena
Errolda sozialaren eskaera		Maidar
Erregistro orriak Erkudeni		Bihotza
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: apirilaren 13, 17:30etan, udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan.		